

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko abuztuaren 14a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • 20ko hamakardako emakumea ikusgai Gustavo de Maeztun.

Jose Miguel Galarregi • «Onddoaren inguruko kultura sortu nahi genuke».



• BLANCA ALDANONDO

Monteagudo: 'dancea'ren tradizioa birreraiki duen herria


Nafarroako Erriberako Monteagudo herriko dantza taldearen X. urteurrena ospatzen da aurten eta horretarako hainbat ekitaldi antolatu dira herrian. Dena dela, aipagarriena taldearen eta bere 'dancea'ren edo paloteadoaren inguruan aurkeztu berri den liburua.



Lizarra • Aro berriko emakumearen jatorria

Gustavo de Maeztuk Espainiako gerra aurreko emakumearen irudia bildu du

La Eva moderna izenburupean, Gustavo de Maeztu museoak 1914-1935 urteetako emakumearen irudia islatzen duen erakusketa osatu du. Orotara, emakumea abiapuntu duten 300 marrazki jasoko ditu pinakotekak irailaren 20ra arte.



Erakusketa emakumearen hainbat irudi ikus daitezke.

● ARTXIBOKOA

ARETOAN SARTU ETA BEGIAREN niniarekin so egin eta gero emakume gazteak, dotoreak, finak, luzeak, biziak eta eragin-korrak ikusten dira Gustavo de Maeztu museoeko hormetan eskegitako marrazkietan. Beren buruaren jabe diren emakumeak, erretzen dutenak, kirola egiten dutenak edota autoa gidatzen dutenak. Horrelaxe irudikatzen zuten emakumea 20ko eta 30eko hamarkadetan prentsan aritu ziren marrazkilariak. Art Deco mugimendu artistikoa hasi berria zen. Espainiako Gerra Zibilaren aurreko urteetan emakumearen irudia uste izan denaren oso bestelakoa zela islatzen da erakusketa. 20ko hamarkadan emakumearen irudiak inoiz izan duen iraultzarik handiena izan zuen. Izan ere, emakumea bete-betean sartu zen gizartearen hainbat arlotan

modu aktibo batean parte hartzeko, ordu arteko egoera erabat aldatuz. Emakumea etxetik kanpo lan egiten hasi zen unean ordu arteko langak hausten dira, gizarte arloan zein moralean ere. Horrek emakumearen beste irudi berri bat sortzen lagundu zuen, eta hori da gaur egun ere inda-

rrean dagoen kontzeptua. Beraz, erakusketa balioko bikoitza da: erakusten dena artelana izateaz gain, garai bateko emakumeraren egoera islatzen duelako. Lehenengo puntuari jarraituz, aipatzeko da erakusketa oso agerikoa dela artea garai horretan izaten ari zen aldaketa. Neu-

rri batean, gizarte gertatzen ari ziren aldaketek marrazkigintzan ere bertzelako aldakuntzak egitera behartzen zuten. Irudien bidez mundu dinamikoa, distiratsua, kosmopolita, ausarta eta modernoa agertu behar zen, eta horrek, gaian ez ezik, estilon ere nabari geratu behar zuen. Gauzak horrela, baliabide berriak erabiltzeari ekin zitzaion, hizkera berria sortzen ari zen, arte modernoa zena, alegia.

Lau atal

Horrekin batera, marrazkilari berrien belaunaldia sortu zen, eta erakusketa garaiko margolari ospetsuen jatorrizko marrazkiak ikus daitezke. Beste batzuen artean, aurkitu daitezke Art Decoaren aitzindariak izan ziren marrazkigileen lanak: Rafael de Penagos, Ribas, Bartolozzi eta Saenz de Tejadareak egindako ilustrazioak, hain zuzen ere.

Arestian erran bezala, orotara 300 margolan ikus daitezke erakusketa, denak jatorrizkoak eta bitxiak. Erakusketa lau ataletan dago egituratuta: lehenengoak orduan indarra hartzen hasi zen modaren alorra jorratzen du; bigarrenak, emakumearen irudi berria ageri du; hirugarrenean berriz, emakumeak gizartearen lortu zuen lekua islatzen du, eta laugarrenak emakumearen barneko mundua eta haren intimitatea bildu ditu. Atal bakoitzak museoaren areto bana hartzen du. Begiak irudietan galtzen diren bitartean, udako beroak izutzeko beste modu bat izan daitezke erakusketa.

→ Kristina Berasain

Amaiur • Herriko festak abiatuko dira gaur

AMAIURREN ERE FESTAK DITUZTE asteburuan. Herria txikia bada ere, egitarau oparoa prestatu du jai batzordeak. Gaur 20:00etan suzuria bota bezain azkar abiatuko da festa. Ordu bat geroago baztan zopak jateko aukera izanen da, eta ondoren dantzaldia Basajaun taldearekin.

Larunbatean, Ama Birjinaren Eguna izanik, egun handia dute amaiurtarrek. Hamaiketako meza nagusiaren ostean 12:00etan mutildantzak izanen dira plazan, eta ordu erdi beranduago hamaiketako kanpoan bizi diren herritarrentzako. Eguneko ekitaldirik garrantzitsuenak azken hogeita hiru urtetan egiten den Artzain-zakur txapelketa izanen da. Artzain-zakurren desfilea 16:30etan hasiko da eta ordu erdi beranduago lehiaketa. Ondoren, dantzaren txanda izanen da. Laiotzek gauerdian hasiko du dantzaldia eta 6:00etan zingar jatea izanen da herriko monolitoan.

Igandean 11:30etan umeen pilota partidua jokatuko dira eta 16:00etan parapente saltoak egiten dira Ostargi elkartearekin, Gorramendi menditik Amaiurreraino. 20:00etan kantaldi aparta entzuteko aukera dute Amaiurrera hurbiltzen direnek: Jean Mixel Bedaxagar eta Mikel Urbeltz, Gaston eta Ana Aguas abeslariak ariko dira. Eguna Gau-bela taldearen dantzaldiarekin bukatuko da. Astelehenean eta asteartean ere izanen da non eta nola gozatu.

→ Uxue Zabaleta

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Seguraski aspaldi ailegatu zitzaidan erabakiak hartzeko garaia, baina orain arte ez nintzen horretaz ohartu. Behar bada, garrantzirik gabeko erabakiak zirelako; agian, berebiziko garrantzirik ez zutelako; edo, bertzerik gabe, edozein bidegurutzeren aitzinean egonda ere, beti banuelako norbait nire ondoan: erabakia hartu aitzinetik aholkuak ematen zituena, egoera berean zegoen bertze norbait, erabaki okerra hartzean «erran nizun nik» zioena, zuzena izanik ere «erran nizun nik» zioena. Eta hori zergatik? Alde batetik, ttikitari (edo ttikiagotan bederen) gehienok esperientzia berdintsuak ditugulako: txistua edo trikitixa, mutil hau edo hori, Lekarotzera ikastera joan edo Hondarribira, eskua sartu edo sartzen utzi. Eta bertzetik, esperientzia hitza asmatu zute-

nak, gurasoak, gure gainean ditugulako, gure erabaki hartzeetan eskuhartzen (gure onerako, noski!) eta gaizki ateratzen denean esku bat botatzen (dena erran behar da).

Baina orain? Hogeita bi urte ditut eta bakar-bakarrak nagoela konturatu naiz, erresponsabilitatea eta ardura guzira niregain hartzeko ordua ailegatu zait. Horregatik, bizia nola bideratu ez dakidala nago. Burua argien eduki behar nuen momentuan, independentzia gehien desio dudanean, dudak dira neuronon tokia hartu dutenak. Eta ez naiz bakarrik ikasketen aimaiara eta lanari buruz ari, ez! Apunteak, irakasleen txapak, unibertsitea... dena uzteko gogoia nuen eta akautu da dagoeneko. Baina ez da hori bakarrik bukatu dena, garai bat bukatu da, etapa bat gainditu dut. Eta

orain zer? dena ikusten dut nahasia: lan munduan sartzeko gogoia, baina gogorik ez; independentzarako gogoia, baina gogorik ez; harremanak aldatzeko gogoia, baina gogorik ez; aldegitiko gogoia baina gogorik ez.

Bizia, erabakiak dira, bidegurutez josia dago, eta bide bat edo bertze aukeratu behar da. Duda mudatan gaudenean, ziurra eta ezaguna hautatzeko ohitura dugu denok, ezezaguna baina izugarri desio dugun hori bazterrean utziz. Eta inoiz ez dugu jakiten zer utzi dugun, arriskatu ez garelako. Nire buruarentzat aholkurik izaten ez dudanean, bertzeoi ematen diedana arriskatzearena da, zerbait lortu nahi izanez gero, arriskatu behar baita. Ea noizbait egiten diodan kasu aholku horri.

Izaba

Erronkariko
euskara ikasteko
ikastaroa

ERRONKARIKO EUSKARA IKASTEKO ikastaroa antolatuta du Erronkarin euskararen alde azken urteetan dabilen Kebenko taldeak. Ikastaroa datorren astelehenean hasiko da, hilaren 28ra arte iraunen du, eta Izaban emanen dira klaseak. Ikastaroa Koldo Artola donostiarrak eskainiko ditu. Artolak urte asko daramatza Erronkariko euskara ikertzen, eta Bernardo Estornes *Erronkariko euskara* liburuko gramatika eta euskalki horretan argitaratutako testuetan oinarrituko da ikastaroa emateko. Bestalde, bailarako euskara ikasteko bertako euskaldun zaharrei egindako grabaketak ere erabiliko dituzte lanerako. «Garai bateko Erronkariko euskara jakitea ezinezkoa da. Ikastaroak euskalkiaren inguruan zerbait irakastea du helburu. Bertakoek barrutik sentitzen duten afektibitatearen ikuspegiplik planteatu dut. Erronkarierara lerratu eta euskalkiaren inguruko zerbait irakatsi besterik gabe», azpimarratu du Koldo Artolak. Bertako jendeak beren aurrekoek mintzatzen zuten euskara ikasteko interesa badagoen arren, ikastaroan hamazazpi lagunek eman dute izena jadanik, Artolak Erronkariko euskara aurrerantzean liburutetan bakarrik aurkituko dugula dio. «Erronkariko euskarak ez du etorkizunik katea etena dagoelako. Geroko zubia ziren azken hiztun zaharrak, Izaba eta Uztarrotzeko batenbatzuk joanak dira. Dena den, oraingo haurrak euskara ikasten ari dira eta D eredu da nagusi bailaran. Beraz, euskarak jarraituko du baina ez ordukoak», gaineratu du.

→ 1. Arrizurieta

• Arbizu •



● MIKEL UHARTE

Turismoa eta kirola uztartuz

Turismoa eta kirola uztartzeko asmoz Arbizuko Udalak Ibilbide turistikoaren sarea eta kirola egiteko zonalde bat prestatu du herrian. Orotara, lau ibilbide dira. Lehena herritik abiatu eta San Donato mendiraino doana da. Bigarrenak, berriz, mendia eta herriko askaldegiko guneak batzen ditu, bazkaltzera doanak ibiltzeko aukera ere izan dezan. Hirugarrena, argazkiak erakusketen duen moduan, kirola egiteko eta aisialdirako prestatutako gunea da. Herriko kiroldegia osagarria da eta kanpoan kirola egin nahi duenarentzako aproposa. Azkenako ibilbideak askaldegia eta aisialdirako eta kirola egiteko gunea batzen ditu. Ibilbideak oso errazak dira eta, San Donato mendira doana izan ezik, edonork egin ditzakeenak.

Larraun

Kalean da
Plazaola urtekaria

URTERO-URTERO, UDA HELDU ORDUKO kaleratu ohi du Plazaola Partzuergo turistikoak bere urtekaria. Batez ere turistei zuzendua izan ohi da, baina inguruko etxe guztietara ere banatzen da. Aurtentzen, inprena arazoak direla eta, beranduago kaleratu da, eta uda giroa nabarmena da bere orrialdeetan. Aurpegi berria erakutsiko du gainera, urtekari honek. Orain arte, egunkari baten formatoa zuenak, hemendik aurrera aldizkari itxura izango du. Hamabi orrialdeetan, hainbat gauza eta

majina bat kontu aurkitu ahal izango dira.

Batik bat, Partzuergo Turistikoaren kontuak biltzen ditu, hainbestean, toki nabarmena du bertan Kultur 98ren egitarauak. Antolatutako ekitaldi desberdinei buruzko xehetasunak daude bertan. Bestalde, duela gutxi egin duten erakusketa ere bildu dute, *Gure herria gure kirola* izeneko erakusketa izan baita ikusgai duela gutxi arte Ibiltarien obaroan. Bertan ikusitako datu eta argazki eta bitxikeriak jaso dituzte erreportaia batean. Hasiera batean lana zena jai nola bilakatu zen azaltzen da bertan, hori baita, zehazki, herri kirolen sorrera.

Uda, askorentzako festa eta jaiaren sinonimo izan ohi da. Hori dela eta, Larraun, Araitz-Betelu, Leitzaldea eta Basaburua-

Imotzeko jaien agenda osatu dute. Bakoitzaren ezaugarriak aipagarrienak ere ageri dira *Plazaola*-ren orrialdeetan.

Baina atalik aipagarriena osatu dute Plazaolako Partzuergo osatzen duten nekazaritza turismo etxeek, ostatuek, jatetxeek eta artisauen buruzko informazioak. Non aurkitu daitezkeen, zein diren bakoitzaren ezaugarriak dakartzan aldizkariak. Badi-rudi aurtentzen aurkeztutako aldaketek, jarraipema izango dutela ondorengo urteetan. Horrela, gero eta hobeto beteko dute partzuergoek beren nahia: aldizkaria jendeari atsegina izateko gida turistikoak bihurtu nahi dute. Hori bai, urtero urtero, aldiroko berrikuntzak ere bilduko dituen.

→ Urko Aristi

herri aldizkariak

Asier Azpilikueta

Bestaz besta, telefonoz telefono

Ttipi-ttapa hamabostekariak oporrak hartu ditu iraila arte, bere azken zenbakian iragartzen duenez. Eskualdeko herrietako besta gehienetako egitarauak biltzen dituzte aipatu azken zenbaki horren orrialde guztiek. Herri bakoitzeko egitarauekin batera aspaldiko eta aurreko urteetako besten argazkiak agertzen zaizkigu.

Aldizkariarekin batera banatzen den Lurra gehigarrian izokinari buruzko erreportai zabalak aurki dezakegu. Horren izenburuak dienez arrain hauen kopurua gora doa mantso-mantso. «Diotenez, Elizondotik Berarat zoaien trenbidea egin zuten denboretan, bertan lanean ari ziren langileek protesta egin omen

zuten egunero-egunero bazkari berbera ematen zitelako: izokina, alajaina. Urtero 200 ale arrantzatzen ziren banaz bertze, eta jatekoak eskasten zirenean, etxe aunitzetako beharrak asetzen ziren izokinari esker. Zenbait faktoreen eraginez, ordea, pausu haunditan desagertzen joan da arrain hau gure erreketatik. Hala ere, izokinaren gainbeheraz berandu baino lehen ohartu garelako iduri du, azken urteotako birpopulazioak beren fruituak ematen ari dira eta».

Lurra gehigarri horretan badago umorearendako lekuri ere. Movistar telefono mugikorraren enpresaren publizitateaz ari dira **Ttipi-tta-**

pa-koak: «Ez baita jaiotako euskarazko itzulpena ulertuko duenik. Akats ortografikoak daudela erratea guttuenekoa da, baina ezin aipatu gabe utzi: «Espainiatik egiten diren prezioak» eta «Hileko kuotarick gabe!», aldarrikatzen dute batere *lotsarick* gabe Movistarrekoek. Hala ere, ostikadarik handiena txartelean bertan soma daiteke. Gaztelaraz «Tu tarjeta recargable» dena, euskaraz «Behin eta berriz karga dezakezun txartela» jarri dute. Konforme. Baina hori hitz batean laburtu eta erdarazko txartelean «Recargable» jartzen duten bezala, euskarazkoan, berriz, «Dezakezun». Harrapazan/k hori!».



urda
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Iruindarrak
Donostiara!

Donostiara joan ginen egunpasa. Bagenekien festak gainean genituela eta zezenplaza berriarekin eztabaida zegoela. Gure asmoa hondartzara joan, pintxo bi hartu, bazkaldu eta besterik gabe eguna itxaso ondoan igarotzea zen. Eta halaxe egin genuen. Dakizuen bezala hiri eder-rra da Donostia. Aldaketak ere baditu noski. Moneorentzat ederegia omen da, hor ari baita bere lan ixil eta militantean plastikoa ereiten, eta ez nolana, bai-zaik eta Iruñerriaren garia ereiten den bezala, kopuru beldurgarri-ri. Boulevard aldean obretan segitzen dute oraindik eta Bretxan lur azpian agertu diren harreri zaharrei berriro ere eguzkiak jotzen die Ertaroan jotzen zien bezalaxe. Eta eguzkia bera da, eta baita hiria ere, baina giza-kiok txinparten gisa igarotzen gara eta mar-mar-mar- filosofiko-ze-polita. *Koldo Mitxelena- ren inbentariuma* dela eta, itxita dago. Akuariumeke tunelarekin batera abuztuaren 15ean zabalduko dute. Gu bezalako turista piloa dago hirian. Hondartzak gainezka eta Jarraituen pankarta bat festetan larrua jotzearen alde. Festak. Noiz hasten dira hemengo festak? Gaur? Bihar?

Hamaiketako hartzera goaz. Jada ordu terdiz ibili gara paseatzen hiribarnean. «Egon», esaten diot adiskideari tabernan, «oraintxe esango dizut noiz hasten diren jaiak». Aldameneko *Diario Vasco* hartu eta «Estruendoso comienzo» irakurtzen dugu. Etzazula esan: festak atzo hasi ziren. Non daude, ordea? Burgosko txakurretaz oroitzen naiz segituan. A ze giroa Burgosko jaixetan. Adiskide batzuk, han ibiltakoak, horrelaxe esan zidaten: «Festak ziren nonbait bainan ez zen batere somatzen. Azkenean txakur bat ikusi genuen lepoan zapi berde bat zuela eta festak zirela jabetu ginen!».

Iruindarra izanda gauza harri- garria iruditu zitzaidan horrela- ko anekdota. Festak oharkabe- an igarotzeal Gurean, noski, ez da horrela gertatzen. Sanfermi- nen pekatua agian gehiegizkoak direla izango da, bainan oharka- bean igarotzen direla esango duenik ez da jaiotako. Eta orain bar- ka diezadatelara Donostiako txakur- txoek, bainan penagarria iru- ditzen zait Burgosko txakurrek euskaldunak baino gaupesero- agoak eta festazaleagoak izate- a. Donostian ezta hori ere, egunkaria irakurri beharra dago festak direla jabetzeko.

Monteagudo: 'dancea' ren tradizioa birreraikiz

Herriko dantza taldearen X. urteurrena dela eta, bertako 'dancea' ren historia bildu duen liburua kaleratu da

Nafarroako Erriberako Monteagudo herriko dantza taldearen X. urteurrena ospatzen da aurten eta horretarako hainbat ekitaldi antolatu dira herrian. Dena dela, aipagarriena taldearen eta bere 'dancea' ren edo paloteadoaren inguruan aurkeztu berri den liburua. Bertan, herrian eta Erriberan orohar paloteadoaren berreskurapena nola izan den kontatu da.

patzen diren jaietan dantzatu eta antzeztuko da berriro ere 'dancea'. Arratsaldeko zortzietan herriko plazan herritarrak eta dantzariak ordu eskas irauten duen ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen dute. Urtero egiten den ekitaldi horren atzean dagoen lana islatu nahi izan du argitaratu berri den liburua.

Paloteadoa zer den jakiteko gida

Folklore munduan ez ezik, kanpotik datorren bantzeko paloteadoa zer den jakiteko gida aproposa dela diote liburuaren egileek. Ez alperrik, argitalpena egiten malatzaren 1ean hasi baziren ere bertan bildu dira: Monteagudoko historia eta geografian zertzeladak; 1894an herriko semea zen Joselico Jarautek Gamazadaren aurka eta Nafarroako Foruen defentsan idatzitako bertsoetan oinarriturik egindako paloteadoaren deskribapena; Gamazadaren gaineko aipamena; dantza taldearen historia; Monteagudoko paloteadoaren dantzen deskribapena; bertsoen gaineko iruzkinak



San Rokean dianetan nesken bila joaten dira mutilak gero dantzatzeko. ● BLANCA ALDANONDO

eta bederetzirteotan esandako bertsoak eta hainbat argazki. Horretarako herriko dantzariak Muga taldeko kideen laguntza ez ezik, Udalarena eta hainbat kolaboratzaileena arrimoa izan dute.




Aingerua, eta Mayoral eta Rabadan dira ikuskizunaren parte hartzen dute hiru pertsonaia dira. Deabruak ere egiten du bere etorrera. ● MIKEL LARRAMEN DI

KEILES IBAIAREN IBILGUAN KOKATUAK DAUDEN Nafarroako herrietatik hegoaldeagorantz dagoena da Monteagudo, Zaragozako probintziaren mugatik gertu. Herri lasaia bada ere, egunotan bertan bizi diren 1.200 biztanleak arrotuak dabilza. Arrazoiak, dantza taldearen hamargarren urteurrena dela eta, Erriberako dantza eta folklorea irakasten eta suspertzen diharduen Muga taldeak hainbat kolaboratzaileen laguntzarekin atzo aurkeztu zuen liburua: *Monteagudo. Una década de danza, un siglo de dance*. Argitalpenak herriko dantza taldea eta duela bederatzirte berreskuratu zen Monteagudo paloteadoaren inguruko informazioa bildu du. Muga elkarteok diotenez, paloteadoa edo 'dancea' zer den jakin nahi duenarentzako ezinbestekoa.

Liburuan kalean da baina hark argia ikusteko hainbat pauso eman behar izan dute egileek. Jose Luis Balmaseda Muga taldeko kideak dioenez Monteagudo Udala eta dantzariak bertako paloteadoa berreskuratzeko asmoarekin Muga taldearekin hasi ziren lanean.

«Ikertzen hastean herrian gauza handirik ez dagoela konturatu ginen. Dauden datu bakarrak Gamazadako testuak dira, Joselico Jarautek 1894an idatzi zituen bertsoak. Orduan, Erriberan dauden eta egon diren gainontzeko paloteadoetan oinarriturik lan egiten hasten gara musika eta dantza egiteko», gogoratu du Jose Luis Balmaseda. Kasik hutsetik hasi ziren lanean dantza taldeok eta egun zuzendari duten Balmaseda, Erriberako beste herri askotan bezala paloteadoa joan den mendearren bukaeran eta XXaren hasieran galdu zen Monteagudon eta mantendu duen herri bakarra Cortes izan da.

Dantza taldeak hamar urte bete baditu ere, paloteadoa berreskuratu zela bederatzirte betetzen dira, dantza taldea errotu ondoren hasi baitziren paloteadoa dantzatzeko. Azken bederatzirteetan bezala, aurten ere datorren igandean, San Roke Egunean, herriko zaindairaren omenez os-



Paloteadoan parte hartzen duten zortzi dantzariak elizako atarian. ● BLANCA ALDANONDO

Muga Elkarte

«Duela ehun urte ez da egon ez dantza talderik ez paloteadorik Monteagudon eta herrera ikaragarria izan da. Herri osoak modu batean edo bestean parte hartzen du. Umeak dantzatzeko duelako, janzkerak egiten edo bertsoak osatzen. Gaur egun ez dira festak ulertzen paloteadorik gabe»

masedak. Dena den, dantzak ere izanen du kabi-da ikuskizunetan eta makil dantzak ez ezik, arku-dantzak, zinta-dantzak eta dantzariak santuari egiten dizkieten diosolak eta Rabadanek erantzuten dituenak.

Herri guztia partaide

Liburua *dancea* zer den jakiteko esku-liburu aproposa izateaz gain Monteagudoko herriak bizi duen giroaren isla ere bada. «Paloteadoa eratu dezakezu edozein herritan baina bi urtetan pikutara joan daiteke. Hemen euskarri indartsua jarri zen lehenik eta behin: dantza taldea bera eta hortik atera da herriko ekitaldi nagusia den paloteadoa», diote Mugaok. Bestalde, urtero paloteadoa prestatzeko sortzen den giroa ere nabarmendu du Balmasedak. «Duela ehun urte ez da egon ez dantza talderik ez paloteadorik Monteagudon eta herrera ikaragarria izan da. Herri osoak modu batean edo bestean parte hartzen du. Umeak dantzatzeko duelako, janzkerak egiten edo bertsoak osatzen. Gaur egun ez dira festak ulertzen paloteadorik gabe. San Roke Egunean herri osoa plazan dago arratsaldeko 8:00etan dantzariak egin dituzten bertsoak entzuteko. Aurten ere Udala eta elizarekin sartuko dira eta zerbait gertatu zaion gertakari berezirekin bat», gaineratu du.

Era berean, liburua egiten ari diren ustetan, garrantzitsua da dantza taldearen arrimoa Muga Folklore elkarteari esker herri guztia dantzen inguruan eskolaratu dela. «Orain joaten dira gaitariak herrira eta guztiak dakite Larrain dantza, jota, arin-arina dantzatzeko eta lehenago inork ez zekien. Jose Luis Balmasedak hamar urte daramatza dantza irakasten eta oso inportantea da Monteagudon dantza errotzeko», azpimarratu du Bidarrek. Finean, herriko festak ere beste itxura bat hartu dute. «Dancea errotu egin da eta herriaren parte oso garrantzitsua da eta hori zen gure helburua. Monteagudoko jaietan duela hamar urte bigantxak eta musika zegoen egun pentsaizina da *dancearik* gabeko festa», bukatu dute liburuaren egileek.

→ Irene Arrizurieta

Erriberan dantza berreskuratuz

Paloteado 'dancea' Nafarroako Erriberako folklorea dantza taldearen jatorria dela aintzat hartuz aipatzeko da urtean hainbat herritan berreskuratzen ari diren taldeok. «Egun momenturik hobereana bizitzen ari da folklorea dantza berreskuratzen ari dira dantza herriaren eta arrakasta handiarekin herritarrek biziki parte hartzen dutelako festan eta berreskuratze lanean», dio Muga taldeko kideak. Monteagudoko paloteadoa berreskuratzeko Cortesekoa zen irauten zuen bakarra baina egun berreskuratu dira Fustiñanan, Ablitasen, Barillasen eta Rabadan ere. Honi gainera, Tuteran Sanjoaneko festetan ere paloteado berria gehitu behar zaio, Tuteran

Monteagudoko paloteadoa hobekiago ezagutzen lagunduko duten liburuan lan egin dute, beste batzuren artean: Mikel Aranburu Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariak, Joxemiel Bidador filologoak, Mikel Larramendi kazetariak, Javier Pomares dantzariak eta Pedro Miguel Sanchez Mugako partaideak. «Liburua oso ona da Paloteado bat zer den esaten duelako. Norbaitek paloteado bat zer den jakin nahi badu liburura jo dezake. Paloteadoa nola egiten den kontatzen duen liburu zehatza da. Kontsulta liburu da, azpimarratu du Balmasedak. Emaitza lan etnografiko interesgarria izan da.

Baina, zer da paloteadoa? Joxe Miel Bidador filologoak eta dantzariak dioenez XVI. mendetik datorren ohitura bada ere orain ezagutzen dena duela ehun urtetik hona datorrena da. «Paloteado hitza bertan makil dantzak daudelako erabiltzen da baina egokiagoa litzateke 'dancea'ri buruz hitz egitea, bi deiturak sinonimoak diren arren. Bada ikuskizun handi bat, dantzak eta parte errezitatuak biltzen dituen bere baitan. Errezitatuak, adituek diotenez, Kataluina aldeko Pirinioan sortu ziren pastoralen ondorio dira, hau da, artzainen arteko elkarriketak» azaldu du. Eragin horretatik paloteadoak bi pertsona hartu ditu: mayoral eta rabadan eta horiei gehitu zaizkie aingerua eta deabrua.

«Kontutan izan behar da paloteadoaren zatirik garrantzitsuenak ez direla dantzak baizik eta errezitatuak zatia. Bi zatitan banatua, lehena pastorada da, urtero bera dela, diosolak eta aingeruaren eta deabruaren partehartzea eta bigarren zati bat, herriko egunerokoari eta urte osoko gertakizunei eskainitako bertsoak. Horrek hartzen du batez ere herritarren harreta», gehitu du Bal-

Lourdes auzoko San Joanetan aurten egindakoa, hain zuzen. Mugaokoen iridiko, Erriberako folklorea berriro berreskuratu eta ikasi nahiak badu arrazoirik. «Beraien dantzak dituzten herriak, paloteadoak adibidez, herritarrek berea egiten dute segituan. Aintzat izan behar da orain hamar urteko zerbait berreskuratzea ez dela zaila baina orain mende bat galdu ziren ohituraz hitz egiten ari gara eta horrek badu meritua», dio Balmasedak. «Erriberan dantzetan muntzatean burura etortzen den berezkoa paloteadoa da eta horrek desberdintzen du beste herrietatik eta batez ere bertsoen antzezpenean zeren makil dantzak Otsagin edo Beran ere aurki daitezke», bukatu du.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Bi emakume idazle nafar: Feli Setoain eta Luzia Goñi

Feli Setoain luzaidarraren idazkigintza nahikoa oharkabean igaro bazaigu ere, Luzia Goñiren bertsoak aunitzek entzundakoak dira; biek izan zuten, ordea, Príncipe de Vianaren euskarazko gehigarria haien lanen euskarri hauta.



FELIZIANA SETOAIN AROSTEGI Luzaiden jaio zen 1912.eko martxoaren 19an; lehenbiziko ikasketak sorterrian eta Hondarribian egin da, Uztaritzen burutu zituen irakaskintzakoak. Luengo deitzen zen kargu goreneko mugazain batekin ezkonduarik, Madrilera aldatu zuen bizitokia, non piano irakasle ihardun zuen. Musikalaria izanki, herri musika biltzeari ekin zion, alabaina, ezagunagoa dateke idazlari gisa; 1960.ean hasi zen bere kronikak *Luzaide* aldizkarian agertzen, baita Príncipe de Viana erakundeak Iruñean ateratzen zuen euskarazko gehigarrian. Honetan 1970.eko iraillean Moises Domezain apez iruñarraren oroitzapenean egimiko nekrologikoen zioenaren arabera, esate baterako, jakin badakigu Japonen izan zela: «Orai dela urte bat abiatzen nitzan ni ere Japoniarat. Hori zen nere aspaldiko ametsa! Han ikusi ditut gauza miresgarriak».

Feli Setoain bereziki ezagun igaro ez bazaigu, tamalez, ez da berdin agitzen Luzia Goñi Oliasekin, zorionez. Basaburuko Aizarotzen 1928.ean jaioa, Garzarongo Bentako alaba dugu, bere bertsoetan esaten zigun bezala: «Lagun maiteak emen nator ni / Zueri gaur kantatzera / Parre pixke bat egin dezagun / Euskaldun denak batera. Gure etxe au izan dezaten / Euskaldunaren txokoa / Zar eta gazte, gizon eta andre / Apaiz eta prailemonjak. Basaburuko alaba naiz ta / Esango diztet nongoa / Nere etxea beti izan da / Euskaldunak famatua. Benta pollit bat mendi artean / Eta bi erreka ondoan / Artius eta Basaburua / Elkartzen dire an bertan. Erreka oietan ni ibiltzen naiz / Amorraiak arrapatzen /



Langostak ere arpatzen ditut / Ez badira eskapatzen. Auek atzerakan asi ez gero / Ez dira erraz gelditzen / Eta arripean sartu ez gero / Asten dira atzimurken. Gazte gazte-tik asi bait nintzan / Ango txokoak ikasten / Ango amorraiak ni ikusi ta / Asi dira ikaritzen. Berrogeitasei urte ditut nik / Eta nago au uzteko / Urtien karga astuna baita / Berriketan ibiltzeko. Orain azkeneko bertso onetan / Esango diztet egia / Garzarongo Bentakoa naiz eta / Izena det nik Luzia».

Bertso hauekin estreina egin zuen Príncipe de Viana erakundearen gehigarrian 1975.eko ekainean Iturberen alargunak, eta ordutik aurrera, ez zuen zerbaki askotan huts egin. 1975.eko uztaila-agozilekoan euskararen eresia eskeini zigun: «Egi batzuk nai ditut erran / Euskera maite gañian / Gure euskera gure gazteak / Gora jaso dutenian. Nere edadeko mutill zar asko / Dabiltz euskera ikasten / Len farre neri egindakoen / Barkazioa eskatzen. Lotsagarria izandu baita / Gure euskera galtzia / Orain zartu ta ezin ikasi / Euskaldunaren grazia. Iruñaldeko lagun maiteak / Entzun gaur nere esana / Mundu guztiak aditutzen du / Euskaldunaren negarra. Barkazioa eska zaiegun / Gure guraso zarrari / Aurrera

joaten utzi dezagun / Gure gaztetasunari. Mundu guzia ikaritzen du / Gazte oken baloria / Euskaldunaren animatikan / Jaio baitira loreak». Urte berean ere, urriko alean Jaunsarasko Martin Altsua akordeolariari eskeini zizkion bertsoak, eta abendu-ko zerbakian berriz, bere familiari.

Berrikiago, talo-egile famatu eta sukaldari ezin prestuago honen beste idazki pollit bat irakurri ahal izan dugu, filosofiarik gordinenaren erakusgarri, «Denak berdiñak politikoak, zozoak beleari esan mentzion beltza», Nafarroako jubilatua zenbaitek idatzitako lanen bilduma batean euskaraz agerturiko bakarra. Hitz lauz ondu ahapaldi luzexka baten ostean, bereziki ongi inprimatu ez zizkioten hiru zortziko txiki zekarzki-gun: «Edertasunez dago / Mundua beterik / Bestetik oraindik / Ez da notizirik / Osasuna ez bestea / Dena erosten da / Dirua izan eskerro / Ongi bizitzen da. Denak itza goxoak / Aberats dan ari / Gaizki ikusita da / Gizon pobreori / Gure ustean gaude / Zerbait bagerala / Eriotza etortzen da / Pentsatzen ez dala. Gure bizia dago / Ongi neurturik / Orratzetik aria / Bezala zintzilik / Edertasunez dago / Mundua beterik / Besteik oraindik / Ezta notizirik».

etorri ahalean

Patziku Perurena



Agur, Venur!

GAURKO GAZTE EUSKANIOLen artean hala aditzen dut, nortasunaren termometro, gailenduz doan aire axolkabetez edo. Halabaina gure *Agur* ditxosozko honek ikusiak ditu bereak eta bost. Euskotarren sorreran izan zituen, antza, aurreneko istiluak, erlijioa eta politika, (biak ergelbazka berdintsu izaki), tarteko zirela. Gasteizko gotzaiak, debekatu zuen 1864an, Juan Jose Galarrendiren *Cristau Dotriñaco Catecismo* gipuzkeraz argitaratze-koan. Honela omen dio debekuak: «... hemos venido en conceder nuestra licencia (...) advirtiendole que en la salutación Angélica debiera convertirse la frase Agur Maria en Ave Maria».

Julio Uquijok 1934ean zentzugabatzat jo zuen zentsura hori, batez ere, hegoaldeko bario erabiltzeko aspalditik erruz erabiltzen zutela esanez. Gero 1955an Salamankan aipatu zuten berriz Luis Michelena eta A. Irigaray jaunek: «se podría citar de pintoresca la prohibición, como si el empleo de una palabra de igual sentido, procedente, además, de la misma lengua, pusiera en peligro la unidad de la fe». Izan ere, *Ave bezelaxe*, gure *Agur* hitza, *adur* senide omen duela, latineko *auguri* (zori oneko) esaneratik baitator, eta *diosala* gurea, gaztelarazko *Dios te salve* esalegetik, filologo adituek diotenez.

Handik gutxira, 1880an Iruñeko gotzaiaren baimenez sartu zeñ ofizial *Agur* hitza aurreneko aldiz euskarazko dotrinetan. Askoz lehenagotik erabilia zen ordea. Aresoko elizakoa da oraingoz ezagutzen den *Agur Maria*-rik zaharrena, 1591lekoa oso oker ez banaiz. Honela hasten da: «Agur Maria, graziaz bete, Jauna da çurequin, çarade bedicatu andre guztien ertean, bedicatu da çure sabel virginalcoo frutua Jesus». Frantzisko Aranguren abadeak elizako paper tartean bilatu, eta argitaratua dago faximil eta guzi Fontesen.

Baina ordukoz elizan sartu zenerako, sinale euskaldunen ahotan aspaldiko usarioa zekarrela. Besteak beste, Jimeno Juriok

azaldu duenez, Indietara 1535-1593 urte bitartean joandako iruñar euskaldun askok, gutunak idazten omen zizkien beren senideei «despidiéndose con su protocolo Agur». Horra hor, bi *Agur* moeta, XVI menderako: bata (Aresokoa) *saludo* gisan, eta besteak, (Indietako gutunetakoak) agian hedatuena, *despedida* gisara. Esanahi bikoitz horixe du, gaur oraindik euskaldun askoren arteko eztabai.

Salamankan esandakoak, erlijiotik politikara ekarri, eta gerrondoko giroan kokatuz, J. M. Sartrustegik hala aitortzen du: «me permití señalar que podrían existir otras motivaciones. Lo decía por el clima de posguerra inquisitorial y ácido que podía crear problemas por el simple uso de la palabra Agur, sinónimo de partidismo político, en las relaciones vecinales de nuestro pueblo».

Egia ugaria. Amari aditua dakit Goizuetan, amona herrira mandatuak egitera edo joaten zenetan, nola etortzen omen zen etxera harriturik, halakok eta halakok *Agur* esan omen ziola kontatuz: «erejek edo gorri madarikatuk ittuen ordu Agur esaten tzutenak».

Leitzan berriz, Tolatxeneko Fermin Azpirozki ikasía, gerrondoko *Agur* esaten zuenari, «limpiate el culo con Amayur» nola erantzuten zioten euskal abertzaleei iseka. Jakina da, *Amayur*, garai hartako nafar aldizkari abertzale eta euskaltzalea izan zela. Zenbat holako gertakari ez luke kontatuko jendeak, herriz herri, etxez etxe, galdezka hasi ezkeror, orduko *Agur* haren soziologiaz?

Neretako, halare, *Agur, Agurra* (Aurrekua), *Agurtu, Agurgarria, Agurtzane...* hitz kultuak dira, literaturan eta euskalgiro jakinean ikasi eta erabili ditudanak. Herri usarioan, nik *Agur Maria* errezatu izan dut umetan; etxe arrotzera «*Aimaria!*» esanez sartu; esandakoa egia berdaderoa dela nabarmentzeko «*hori abemaria da*» erantsi; eta kaskagor antza dena, «*Ayo mote!*» esanda utzi, edo bestela batera «*Adio! in gabe*» ospa. Eta nago, bakoitza bere usarioan, adiera horiek denak jaso behar litzekela, hain zuten, orotarikoak den euskal hiztegi batek.

Ziria

• Motxorrosolo •


Baztango kuartelak

HITZ EGIN AURRETIK ERABAKIA ALDAEZINA DELA IRAGARRI DU. EZEZAGUNA LEHENDAKARITZA Kontseilariaren aldarrea. Katalumian hainbat urtez egon arren katalaneraz ezer gutxi ikasi izanaz harro dagoen hori. Nonbait, ez zen kuarteleatik atera. Beraz, ez da harrigarria bere jokamoldea, eginkizun horretan alderdikidean laguntza izan du. Alta, ezer gutxi dakigu Baztanaldean dituzten ordezkariak, horien iritzia ez omen da interesgarri komunikabideentzat. Tradizionalistendako folklorea dugu tradizioa, erakunde tradizionalen traizioa egin arren. Baztanen lau kuartel.

Jose Miguel Galarregi Onddo Kofradiako lehendakaria

«Onddoaren inguruko kultura sortu nahi genuke»

Jose Miguel Galarregi Nafarroako Onddoen eta Perretxikoen Kofradiako lehendakaria da. Elgorriagan irailean eta urrian egingen den Aste Mikologikoa antolatzen ari da egunotan. Onddoaren ezagutza zabaltzeko asmoarekin, besteak beste, herrian eginguten Onddoaren Ibilbidea irekiko dute heldu den hilabetean. Galarregik dioenez, hainbat jabetzetan hain preziatua den jaki horretaz asko dago ikasteko.



● MIKEL SAIZ

KONPONTZEN ARI DIRA HERRIKO udaltxean, eta hantxe hartu gaitu Galarregik. Doneztebetik kilometro gutxira herriko mendietan goizeko lainoak zeru urdinari lekua uzten dion bitartean, hain gogoko dituen onddoen inguruko proiektuez mintzatu da.

■ **Nola jaio zen Nafarroako Onddoen eta Perretxikoen Kofradia?**

Orain lau urte sortu zen. Txikitatik zizak eta onddoak hartzera afizio handia nuen. Behin, lagunartean ginela, erabaki genuen kofradia egitera. Elgorriagan eta onddo inguruetan onddo aunitz biltzen dira. Horrela hasi eta poliki-poliki urtero egin dugu zerbeit.

■ **Geroztik, zer egin duzue onddoaren alde?**

Lehenengo urtean pinua eta onddo esnegorria paratu genuen mendian. Bigarrenetan, berriz, ezkurak eta hemengo onddobeltzak hartu eta Bartzelonako eta Frantziako laborategi batzuetara igorri ziren. Han onddoari espora kendu eta ezkurari sartu zioten. Hortik ataratako zuhaitz txikiak Onddoen Ibilbidean paratu ditugu eta hemendik lau-bost urtera onddoa emanen dute. Joan den urtean kofrade bakoitzak hemengo haritz arbola bana paratu genuen. Aurten ere hainbat ekitaldi antolatu ditugu. Joan den urtean hasi ginen Onddoaren Bidea proiektua egiten. Zortzi milioi pezeta kostako da (320.000 libera) eta irailerako bukatuko da. Euskal Herriko arbol mota guztiak paratu behar ditugu. Ibilbidean

hainbat gauza paratu dira: ikaztokia, zuhaitzpeak, eserlekuak... Jendea honat etortzea nahi dugu; paseatzera haurrekin, ikaste-txeetatik ikastera... Aurten herriko etxe bat erosiko dugu, eta ingurugiroaren eta onddoen inguruko ikastaroak eman nahi ditugu. Hori bertze 20 milioi pezeta kostako da (800.000 libera). Bestalde, errota izandako tokian nahi dugu paratu onddoak erakusteko tokia.

■ **Beraz, zuen helburua onddoaren inguruko kultura zabaltzea da?**

Jendea lan egitera etortzea nahi dugu. Estatutoek esaten dute garbi onddoen defentsa eta turismoa bultzatzeko gaudela eta horretarako egin behar da lana. Gure asmoak onddoa eta Elgorriagako herria bera eza-gutzera ematea dira.

■ **Onddoaren inguruko kofradia osatu duzue, baina benetan jendeak badaki onddoen inguruan?**

Azken hiru urteetako egin ditugun beste hainbat astetan onddoen inguruko hitzaldiak eman ditu Garcia Bona mikologo iruindarrak. Ez dugu onddoa bakarrik jaki bezala bultzatu nahi, baizik eta haren inguruko kultura sortu nahi genuke. Horregatik, asteaz gain aurrerago onddoen berri emateko udako unibertsitate bat sortu nahi genuke Bertizen. Hainbatetan aipatu diot ideia Nafarroako Gobernuari baina ez dute aintzat hartzen.

■ **Onddoa ezagutzera emateko**

hainbat ekitaldi antolatu dituzue. Hainbestekoa ahal da afizioa inguruotan?

Hemen denen da afizioa: Bortziritan, Malerrekan, Bertizaranan eta Baztanen. Eta plateran ere ikusten da aunitz, jabetxeata eskaintzetan ere jartzen dute Elgorriako onddoen nahasketa.

■ **Gipuzkuarrak baino afizio gehiago duzue?**

Ez. Haiek jateko eta biltzeko afizio ikaragarria dute. Asko etortzen dira honera eta ongi etorriak hemengo errespetatzen duten bitartean. Gainera, guk hemengo mendietan dauzkagu, baina haiek gu baino gehiago dakite onddoetaz. Dena den, urtez-urte gero eta gehiago ikasten ari gara.

■ **Onddozalea izanik, zein duzu onddo hobereana?**

Onddobeltza, dudarik gabe. Batzuk perretxikuak nahiago dituzte, baina onddobeltzak ez du parekorik niretzat. Gainera, hori da gehien biltzen duguna ongien ezagutzen duguna delako, onddo esnegorria aunitz ateratzen da baina ez du inork nahi. Jendeak fedea du onddobeltzarekin, eta perretxikuak eta zizak ez dute hainbeste arrakasta.

■ **Dena den, jendeak badaki onddoak biltzen?**

Jose Miguel Galarregi berez sunbilarra da. Emaztea Oieragikoa badu ere, Elgorriaga gustatu eta hara ezkondu ziren. Bi semeeren aita, Elgorriagan egoitza duen Nafarroako Onddo eta Perretxikoen Kofradiako lehendakari izateaz gain, hirugarren legegintzaldia du herriko alkate lanetan.

Aceraliak Nafarroan (Lesakan) eta Asturiasen dituen enpresen Administrazio buru izan zen, duela gutxi erretiro aurreratua hartu zuen arte. Orain lasaia bizi den arren, Bertizko Partzuergoko idazkari lanak eta kofradiak hainbat betebeharrak ematen dizkiote. Egundotan Onddoen Astean irekiko den Onddoen Bidearen zortzi kilometroak moldatzen ari dira bera eta kofradiako beste kideak.

Elgorriagan bainuetxe bat paratzeko proiektua ere abiatu dute. Bertako ur gaziak aprobetxatuz 1953az geroztik itxirik egon den bainuetxea zabaldu nahi dute berriro. 200 biztanle besterik ez dituen herri batentzako 1.000 milioi pezetako aurrekontua duen eta 40 lanpostu sortuko lituzkeen bainuetxea zabaltzeko lanetan hasiak dira. Finantzetaren erdia Espainiako Gobernuak ordainduko du, % 30 Nafarroako eta gainontzeko Elgorriagako herriak. «Herri txikietan ekonomia sustatzeko baliabideak jartzen ditugu edo akabo herria», dio.

Ez. Zizak eta onddoak puskatzen dituzte eta bota. Horretarako dira beharrezkoak ikasketak, eta fedea dut urte batzuetan jendeak ikasiko duela ezberdintzen eta behar duena hartzen. Onddo biltzera doanak lehenengo begiradarekin jakin behar du zer onddo edo ziza den. Ona edo txarra den berezi eta hartu.

■ **Ibilbidean badaude onddoak biltzeko tokiak?**

Inguruan onddo biltzeko dauden toki hobereenetik pasatzen da

bidea. Ez dut erranen nondik den, baina badira.

■ **Lagunei onddo biltzeko toki aproposak esaten dizkiezu?**

Hori ez du batek inoiz esan behar. Goitiko edota behetiko zelaetan edo pagoditan atereak direla erraten duzu, baina bakoitzak ez du erraten non hartu duen zehazki. Herrikoek badakigu non ateratak diren, baina bakoitzak berea gordetzen du.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Katakunbetatik

Hau mezu bat duzue ikustezi-nezko gizakientzat» dio Danba taldearen aspaldiko kanta baten leloak. Ikustezi-nezko gizaki horiek izan badira, gauza jakina baita aspaldiko hedabideetan lekuri hartzen ez duena existitu ez balitz legez gertatzen dela. Gure arbasoekin konparatuta mundua zabaldu zaigu begi aurrean eta oso errealitate ezberdinak ezagutzeko gai gara. Baina gure zoritxarrrako ia-ia gehienetan mundu zabal eta (ustez) zoragarri horrekin harremanetan sartzeko modu bakarra hedabideak dira. Honela, errealitate bat baino ezin dugu ikusi, kontrakoa iduri arren ispiluaren koloreen aniztasuna gezur galanta delako.

Gure aurrean egunkari, aldizkari, irratia eta telebista nahikotxo agertuko zaizkigu, itxuraz pentsamolde ezberdinak defendatzeko eman omen dituzten askatasuna aprobetxatuz... Baina arretaz aztertuz gero berehala konturatu gara haien arteko ezberdintasunak nimoak direla. Badira gutxi batzuk ordea... (baina kontuz!).

Harira, ikustezi-nezko gizakiak dira horietan lekuri ez dutenak, zonalde ilunean bizi dira eta mikrodonak ez zaizkie inoiz hurbiltzen. Gero eta toki gutxiago dute azken muturreraino: su eman norberaren buruari telebistan minutu erdi eskasa lortzeko. Eta orain hau...

Etxekoandre, xakelari, ekologista, ikasle, pentsalari, erdaldum, langabete, preso, kirolari, internazionalista, sukaldira, atzerritar, gorri, rockero, intsumitu, burugogor eta ahaztu ditudan beste hamaika. Batzuentzat beti izango zarete ikustezi-nezko gizaki. Baina beste askok, zaretalako, ikusi nahi zaituztegu. Horrexegatik, beste arrazoi askoren artean, egingo dugu.

(Ustegabe bat gertatu da: gai honen inguruan idatzi ahal izan dut inor iraindu gabe. Zahartzen hasia naiz. Bukatu, hasi bezala, kanta batekin. Musika. Negu. «Komuneko paretan grafiti batek, eginberria, «Ghetotik atera, gorrotoa antolatu»).

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Bertiz:** Jauregian Alborada seikoteak musika klasikoko emanaldia eskainiko du bihar, 12:30etan eta 18:00etan.
- **Elizondo:** Erramun Martikorenak kontzertua eskainiko du datorren asteazkenean, Arizkurenea Kultur Etxean, 21:00tan.
- **Erriberri:** Andra Mari elizako klaustroan Vaghi Concerti taldeak bere musika eskainiko du heldu den asteazkenean, 20:30tan.

ZINEMA

- **Lizarr:** Montxo Armendarizen *Barregarriaren dantza, Ikusmena* eta *Nafarroako ikazkinak* pelikulak pantailaratuko dira datorren ostegunean, 22:00etan, Los Llanos pasealekuan.

BERTSOLARIAK

- **Zubieta:** Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira bihar bertsoetan herriko plazan 12:30etan.
- **Goizeta:** Estitxu Arozena, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Xabier Legarreta eta Jon Sarasua bertsolariak bertsoetan ariko dira astelehenean, 20:00etan, plazan. Asteazkenean berriz, Jesus Mari Irazu, Iñaki Murua eta Maialen Lujanbioren txanda izanen da. Hirurak Goizetako elkartearen eginen diren bertso-afarian ariko dira.
- **Donamaria:** Jon Maiak eta Aitor Mendiluzek bertso saioa eskainiko dute bazkalorduan datorren asteartean.
- **Arantza:** Estitxu Arozena, Sebastian Lizaso eta Jesus Mari Irazu bertsoetan ariko dira heldu den astearte arratsaldean.

ERAKUSKETAK

- **Lekunberri:** Mitxausenea Kultur Etxean Elena Asinsen lanak ikusteko aukera dago irailaren 13ra arte.

BESTELAKOAK

- **Valtierra:** San Ireneoren XIII. Krosa korrituko da gaur 18:00etan Erriberako Pasealekuan.

- **Villamayor de Monjardin:** Bakoren doinuak izenburupean musika eta ardoa uztartzen dituen ikuskizuna antolatu du Lizarrako Kultur Etxeak. Ardoa eta jakiak dastatzeaz gain, Divertimento hirukotea entzuteko aukera izanen da gaur 20:00etan. Tokia lortzeko 948-554011 telefonora deitu behar da.
- **Iruña:** Nafarroako Antzerki Eskolak bi tailer antolatu

ditu udako. Abuztuaren 17tik 21era haurrentzako joku dramatikoak irakatsiko da. Abuztuaren 31tik irailaren 4ra, berriz, txontxongiloak, jostailuak eta jokoak egiteko ikastaroa izanen dute. Informazioa, 948-229239 telefonon.

► **Leire:** Monasterioan gregorianoz kantatutako bezperak entzun daitezke egunero irailaren 13ra arte.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini.....